

5/2022 FORU AGINDUA, urtarrilaren 28koa, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariarena, Nafarroako parke eolikoetarako baimena arautzen duen maiatzaren 8ko 56/2019 Foru Dekretua aldatzeko prozedura hasi duena.

Nafarroan parke eolikoak ezartzeko baimena maiatzaren 8ko 56/2019 Foru Dekretuak arautzen du. Foru Dekretu horrek indargabetu egin zuen otsailaren 26ko 125/1996 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Komunitateko lurzoru urbanizaezinean parke eolikoak ezartzea berariaz arautzen zuen lehen testu arauemailea.

Bi urte baino gehiago igaro dira indarrean sartu zenetik, eta beharrezkotzat jo da 56/2019 Foru Dekretuaren zenbait alderdi zehatz aldatzea.

Zehazki:

1. Lehen xedapen indargabetzailea. Horren bidez, azkendutzat jo ziren udalez gaindiko proiektu sektorial guztiak (UPrS), aurreko erregulazioaren (otsailaren 26ko 125/1996 Foru Dekretuaren) arabera onetsitakoak; izan ere, araudi berriak ez du eskatzen halako proiektu bat tramitatzea parkeak ezartzeko, eta, hirigintzaren ikuspuntutik, nahikoa da lurzoru urbanizaezinean baimentzen ahal diren jardueretarako baimena ematea. Azkentze hori uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 46.2 artikuluan ezarritako legezko gaikuntzaren babespean zegoen (1/2017 Legegintzako Foru Dekretua, uztailaren 26koa, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina –LAHFLTB– onesten duena). Horren arabera, Nafarroako Gobernuak erabaki dezake udalez gaindiko proiektu sektorial bat azkentzea, baldin eta proiektuaren exekuzioa amaitu bada eta haren helburua bete bada.

Ildo horretan, lehen xedapen indargabetzailearen edukia hobeki egokitu behar da LAHFLTBak UPrSak azkentzeari buruz ezarritakora; izan ere, osorik edo zati batean gauzatu ez diren UPrSei eraginen die.

2. Parke eoliko aldaketak. Era berean, komeni da 56/2019 Foru Dekretuaren 21.2 eta 22.2 artikuluen aldaketa baloratzea, eta argiago zehaztea parke eoliko aldaketak hirigintzako foru-baimenaren mende daudela.

Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 55. artikuluekin eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2004 Foru Legearen 132. Artikuluekin bat etorritik,

AGINTZEN DUT:

1. Hasiara ematea Nafarroako parke eolikoetarako baimena arautzen duen maiatzaren 8ko 56/2019 Foru Dekretua aldatzeko prozedurari.

2. Zerbitzu Juridikoaren eta Lurralde Plangintzaren Zerbitzuari ardura ematea aldaketa hori egin eta izapidetzeko, Lurralde eta Paisaia Zerbitzuekin lankidetzan.

3. Foru agindu hau helaraztea, behar diren ondorioetarako, Zerbitzu Juridikoaren eta Lurralde Plangintzaren Zerbitzuari, Lurralde eta Paisaia Zerbitzuari eta Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaia eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuko, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko eta Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiei.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 28an.

LURRALDE ANTOLAMENDUKO, ETXEBIZITZAKO, PAISAIKO ETA
PROIEKTU ESTRATEGIKOETAKO KONTSEILARIA.

José María Ayerdi Fernández de Barrena

(sinadura jatorrizkoan dago)